



Cadre européen commun de référence
pour les langues (CECRL) Niveau A2

EUSKARAREN

EBALUAZIOA

*Evaluation des acquis
en langue basque*

HIRUGARREN ZIKLOAN

Cycle 3

2017 – 2018 ikasturtea

Ikaslearen bilduma

Izena:

Eskola:

LEHEN EGUNA:

1. Irudi honi doakion testua hauta eta zenbaki egokia ingura ezazu.

Nota: .../ 5



1	2	3
Ama eskolako haurrak ateraldi bat egitera abian dira. Bakoitza bere aulkian jarririk, lasaiki kalakan ari dira. Kanpoan euria ari du, zerua beltza da. Anak bere panpina hartu du, Xakurtxo deitzen da, xuria da. Peiori erakusten dio. Mattin eta Xalbat irakurtzen ari dira. Irakaslea pasatzen da ikusteko denak ongi jarriak direnez. Xexiliri segurtasun uhala estekatzen dio.	Ama eskolako haurrak autobusez ateraldi batetik itzultzen dira. Biziki akituak dira, anitz ibili direlako. Aulkietan lokartzen dira giblekoak. Kanpoan euria izan da egun osoan eta orain, busti bustiak dira. Xexili negarrez ari da, bere zapata berriak zikindu dituelako. Bere lagunak erraten dio ez dela grabe, bere burasoekin garbitzen ahalko dituela. Zein egun luzea!	Ama eskolako haurrak autobusez ateraldi bat egitera abian dira. Lasaiki kalakan ari dira: -Badakizu, atzo arratsaldean, ene aitarekin txotxongiloak ikusi ditugu. Zein ikusgarri ederra! erraten dio Nahiak Xexiliri. - Nik itsas bazterrean ibilaldi bat egin nuen aitatxi eta amaxirekin. Uhin handiak baziren! - Peio, ene panpina maite duzu? galdetzen dio Anak bere lagunari. - Nola du izena? - Untxitxo. Aitor aldez, oihuka hasten da: -Aski! Utz nazazu bakean eta jar zaitez! Nardatzen nauzu!

2. Marrazki bakoitzean letra egokia idatzi behar duzu esaldiak eta marrazkiak
parekatzeko. KASU: Marrazki baino esaldi gehiago bada!

Nota: .../ 5

- A. Felix tindatzen hasiko da.
- B. Felix marrazten hasiko da.
- C. Anek arrainak arrantzatu ditu egun.
- D. Anek liburu bat arrantzatu du egun.
- E. Lorentxa eta Egoitz irakurtzen ari dira.
- F. Egoitz eta Lorentxa jaten ari dira.
- G. Antton bere zalditik erori da.
- H. Antton bere zalditik eroriko da.
- I. Egoitz bere lagunaren ondoan irakurtzen ari da.
- J. Egoitz bere lagunaren giblean irakurtzen ari da.

Erantzun zuzenak :



Lorentxa

Egoitz



Felix



Ane



Antton

3. Galdera bakoitzarentzat, zenbaki egokia idatzi behar duzu galdera eta erantzuna parekatzeko. KASU: galdera baino erantzun gehiago bada!

Nota: .../ 5

- A. **Nondik** heldu da Xan?
- B. **Norentzat** da opari hau?
- C. **Noiz** bukatuko duzu lana?
- D. **Non** da zure anaia?
- E. **Zer** erosi zenuen atzo ?

- 1. Itsasotik
- 2. Mikelena
- 3. Arratsaldeko 5etan
- 4. Oihanera
- 5. Kirola
- 6. Atzo
- 7. Pettan
- 8. Elisarentzat
- 9. Jostailua
- 10. Donibane Garazin
- 11. Patxik

A	B	C	D	E

4. Testu puzzlea: istorioa kontatzeko, zatiak ordena itzazu zenbakiak ezarriz.

Nota: .../ 5

Tartaro

1	Behin, bi anaia, Pettan eta Xarles, bidaia luze batetik etxera sartzean, oihanean galdu ziren. Gaua nonbait pasatu behar zuten eta, hango leize-zilo batean sartu ziren. Berantago, Tartaro itzuli zen bere ardiekin eta, leize-ziloan sartuta, sarrera harri handi batez hetsi zuen. Bi anaiak han zirela ohartu zelarik, Tartarok honela erran zion Pettan, anaia zaharrenari:
	Orduan Tartaro, gaztearen bila hasi zen itsuka, baina alde batetik bestera, ihes egiten zuen mutilak. Topatu ez baitzuen, sarrerako harria mugitu eta ardi guziak, banaka, bere zango artetik pasarazi zituen. Mutila ere han atera zen, ardi larru batean gordea. Kanpoan, lasterka eskapatu zen. Tartaro ohartu zelarik Xarlesek ihes egin zuela, eraztunaz gogoratu zen eta deika hasi zen:
	Afari horren ondotik, lotaratu baino lehen, Tartarok eraztun hiltun bat hartu zuen eta Xarlesi sartu zion erian. Eraztun horri galdetzen zitzaizlarik: - «Non zaude?» Beti gauza bera erantzuten zuen eraztunak: - «Hemen naiz! Hemen naiz! - Horrela, non zauden jakinen dut beti» erran zuen Tartarok eta lokartu zen.
	- «Non zaude? - Hemen naiz! Hemen naiz! » erantzun zion eraztunak. Ahots hori segituz, Tartaro mutilaren gibeletik abiatu zen. Baina gazteak han inguruko putzu batera bota zuen eraztuna. Tartarok berriz ere oihu egin zuen: - «Non zaude? Eta eraztunak putzuaren barnetik: - Hemen naiz! Hemen naiz!» Eta Tartaro putzura erori eta bertan ito zen. Geroztik, hango jendeak bakean bizi dira.
	Tartaro lo zen bitartean, Xarlesek ez zekien zer egin, ateratzeko harri handia ezin baitzuen mugitu. Azkenean ideia bat ukan zuen. Gerrena hartu, sutan berotu eta Tartarori sartu zion bere begi bakarrean. Erraldoiak, oihu ikaragarri bat eginez, gerrena atera zuen. - «Itsutu egin nauzu, mutil madarikatua ! Zu ere janen zaitut!»
	- «Zu, gaurko.» Eta Xarlesi : - «Zu aldiz, biharko.» Eta hori erraten zuen bitartean, Pettan hartu, gerren bat alde z aldez sartu eta sutan ezarri zuen. Oso osorik anaia zaharrena jan zuen.

5. Hurrekin egin diren bi emankizunak entzun eta, zuzen ala oker den ezar ezazu:

Nota: .../ 10

a) Haurrak lanean

- Emankizun honetan, Buenos Aires-eko haurrak mintzatzen dira:
- Munduan 6 haurretarik bat lanean ari da:
- Munduan haur batzuk lanean ari dira eskola maite ez dutelako:
- Hurrek, eskola munduan gaindi nolakoa den irudikatzen dute :
- 2025eko asmoa da haurrak lan egitera ez gehiago behartzea:

b) Urte berria

- Haur bakoitzak 2018ko bere ametsa erraten du:
- Emankizun honetan, eskolako aktibitateak aipatzen dituzte:
- Haur batek munduaren itzulua egin nahi lukeela erraten du:
- Haur batek ikusi duen azken futbol partida kontatzen du:
- Haur batek beste xakur bat nahi luke:

6. Jende heldu baten aurkezpena entzun eta, zuzen ala oker den ezar ezazu:

Nota: .../ 10

Fruitu biltzea

- Mahats biltzea aipatzen dute:
- Kooperatiba Eztigar deitzen da:
- Bi sagar mota dira: mamulak eta anisak:
- Mintzatzen den emaztea Pantxika deitzen da:
- Sagarrondoak Donibane Lohizunen dira:
- Aurten usaian baino berantago hasi dira sagar biltzen:
- Sasoia ederra izan da, fruitu anitz bada:
- Ekaina eta uztaila hilabete txarrak izan dira:
- Aurten, 280 eta 300 kg artean bilduko dituzte ontsalaz:
- Sagarrekin sagar jusa eta sagarinoa egingen dute:

7. “Kotilungorriak” testua entzun eta, galderei arrapostuak eman, gurutze bat ezarriz. Kasu, galdera batek bi erantzun zuzen ditu.

Nota: .../ 20

Zenbat egunez ospatzen dira ihauteriak Uztaritzen?	Hiru ☐ Lau ☐
Nola bukatzen dira ihauteriak Uztaritzen?	Etxe batean dantza bat emanez ☐ San Pantzarren auziarekin ☐
Zein pertsonaia agertzen dira Uztaritzeko ihauterietan?	Kotilungorriak ☐ Olentzero ☐ Kaskarotak ☐
Zenbat kotilungorri dira gehienetan?	sei ☐ bi ☐
Nola jantziak dira kotilungorriak?	Zaia (edo gona) gorriz, eta galtza xuriak azpian ☐ Zaia (edo gona) xuriz, eta galtza gorriak azpian ☐ Zerri buztan bat badute ☐
Kotilungorriek: zer dute buru gainean?	Euskal boneta ☐ Kapelu luze bat, piramide formakoa ☐
Kotilungorriek: aurpegia agerian dutea?	bai ☐ ez ☐
Zer egin behar dute Kotilungorriek etxeetarik pasatzean?	Ipuin irringarriak kontatu ☐ Dantza ederrak eman ☐ Dirua bildu ☐
Kotilungorriak, zoin aldetan dira?	Ihauterietako pertsonaia "onetan" (garbi eta ontsa beztituak) ☐ Ihauterietako pertsonaia "txarretan" (zikin eta nahasiak) ☐

8. Diktaketa.

Nota: .../ 10

[illegible]

9. Testu hau irakur ezazu (irakasleak ez du irakurri behar):

Eguberri goiz honetan, hiriko eraikin honetako haur guziak beren opariak irekitzen ari dira.

Apartamentu batean, Xan bizi da bere aita-amekin.

Xan, begiak handi handiak idekirik, bere paketeari so dago. Fite fite, paper estalki urdina, izar horiz apaindua, urratzen du eta ... «indiano» mozerro bat deskubritzen, luma koloretsuekin. Bikain!!! Bizi-bizia, bere arkua besoetan hartu eta oihuka hasten da!

Beste apartamentu batean, Mikel bizi da bere burasoekin.

Mikelek, besoetan hartzen du pakete pisua. Denborarik galdu gabe, kentzen dio paper estalki berdea, izar xuriz apaindua, eta zer sorpresa : «suhiltzaile» jantzi bat, kaskoa eta dena. Aita-amen gelara doa PIN PON PIN PON oihukatuz, hodia eskuan.

Oraino beste apartamentu batean, Antton bere aita eta amarekin bizi da. Bere paketearen gainera jauzi egiten du eta paper gorria, zilar kolorezko izarrekin, urratzen : «Zorro»-ren soineko bat du, maska eta dena. Aupa! Lasterka aita-amen logelara doa.

Igogailuan, erdi lo, hiru aitak jausten dira paper guzien botatzera zakarrontzietara. Eta berriz goiti joatean, semeak kanpora jostatzera igortzen dituzte, pixka bat gehiago lo egiteko gogoz.

Kanpoan, hiru mutikoak jostatzen dira, ongi mozorroturik.

Neska bat heldu zaie:

- Ni Elaia naiz. Nahi duzue enekin jostatu?
- Ez duzu jostailurik, ez eta jantzirik, dio Xanek.
- Bego beraz, banoa berriz ene espazio ontzira.
- Zure espazio ontzira?

Harriturik, mutikoek segitzen dute, eta han atzematen dute delako espazio ontzi hura: kartoiz eta paperez egina, baditu antena, radar, makila eta guzi. Ez du deus eskasik...

- Zein polita den zure espazio ontzia, zein dirdiratsua, dio Xanek. Baina, begira... hau da ene paper urdina, izar horiekin...
- Baina, dio Mikelek... hau ene paper berdea, izar xuriekin...
- Eta hau, harritzen da Antton... Errazu, Elaia, nondik heldu da zure espazio ontzi hau?
- Oh, biziki urrun den planeta batetik ...!

Testuan diren hitz horien itzulpena atzeman ezazu hiztegia erabiliz, testuingurua kontuan hartuz.
Kasu: hitza ez da beti den bezala agertzen hiztegian.

Nota: .../ 5

Arbelean idatz: paper estalki : papier cadeau

eraikin:

suhiltzaile:

hodi:

mozorro: mozorroturik:

dirdiratsu :

10. Ariketa: Aitzineko testua berriz irakurriz, galdera horiei erantzun iezaiezu:

Nota: .../ 10

1) Nola deitzen dira ipuin honetako pertsonaia nagusiak? (puntu bat)

.....
.....

2) Zein dira mutiko bakoitzaren opariak? (3 puntu)

.....
.....
.....

3) Zergatik jautsi ziren kanpora hiru aitak? (2 puntu)

.....
.....

4) Zerez egina zen Elaiaren espazio ontzia ? (2 puntu)

.....
.....

5) Zein izan zen mutikoen iritzia Elaiaren espazio ontzia ikustean? (2 puntu)

.....
.....

11. Testu honendako, bost titulu hauetarik, zein hautatuko zenuke? Ingura ezazu.

Nota: .../ 5

Itsas ontzia

Anttonen arreba

Izar gorriak

Xan su hiltzailea

Elaiaren espazio ontzia


13. ariketa:

Nota: / 10

a) Azpiko eskemaren izenburu zuzena hauta ezazu eta kopia lauki egokian (2 puntu):
 ilar biribilaren ugaltzea – ilar biribilaren bizi zikloa – ilar biribilaren elikatzea

b) Eskema ongi begiratu eta, erranaldi bakoitza lauki egokian idatz ezazu (4 puntu):

- Landare heldua loratzen da.
- Lore bakoitza, fruitu (leka) haziduna bilakatzen da.
- Hazi bakoitzetik landare gazte bat sortzen da.
- Landare gaztea hazten da.



Tavernier, jarduerak CM2

c) Erranaldiak osa itzazu (4 puntu):

Lorea bilakatzen da.

Lekaduna da.

Hazi guziek landare ttiki bat badute beren baitan :

Hozitzean, landaretttoa bilakatzen da.

14. ariketa: Elkarrizketa hitz egokiekin osa ezazu:

ogirik – ene – ederrago – kusiarekin – orduan – Haritzi – norentzat – Pettanek – ederrena – hau – solomozkoa

Nota: .../ 10

Pettanen aita haragi xerrak eta lukainak erretzen ari da.

- «Noren azieta da hau?
- azieta da» erantzuten du
- « Zerezko ogitartekoa nahi duzu?
- nahi nuke.»

Bitartean, ttanttak ogi zatiak hurrei banatzen dizkie.

- « da ogi zati handi hau?
- Enetzat!» oihukatzen du Anak.
- «Nik ez dutnahi! erantzuten du Patxik.»

Gorka, Haritz eta Maina ez dira gose, zango baloian jostatzen ari dira.

- «Hemen, hemen!» oihukatu du Haritzek.
-, Gorkak baloia bota dio.

Maika, Mikela bere, eguzki-loreak biltzen ari da.

- «Begira lore, zoin ederra den!
- Eta hori da oraino, ez duzu uste?
- Bai arrazoi duzu, denen artean da.»



15. ariketa: Irudia begira eta galderei erantzun iezaiezu, erranaldi bat eginez:

Nota: .../ 10

Nor da kanapean lokartu?

Non ari dira emankizuna begiratzen amatxi eta ama? (*telebista*)

Nondik heldu da Nahia bizikletaz? (*oihan*)

Nork irakurtzen du liburu bat?

Nori gustatzen zaio txokolatea?

Nora heltzen da Nahia bizikletaz? (*etxe*)

Zure ustez, nork du dado partida irabazi? Uste dut

Zergatik ireki du aitak eguzkitakoa terrazan?

